

ATZO GAUEAN BANATU ZITUEN EABK 1999KO JOKULARI SARIAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN EGIN JAIALDIAN

Lukax Dorronsororen ibilbidea saritu du Euskal Aktoreen Batasunak

■ Gaueko 20:30ak baino lehentxeago hasi zen jaialdia, atzerapen pittin batekin, aretoak jende kopuru polita erakusten zuela

■ Ane Gabarainek jaso zuen Zinema Saria, *Pecata minuta* filmean eginiko lanagatik; eta Alex Angulok Telebista Saria

■ Antzerki Saria Koldo Losadarentzako izan zen, eta Jokulari Berria izenekoa Nagore Aranbururentzat

Amagoia Iban / Donostia

IKUSLEAK txalo egiteko gogo biziz agertu ziren atzo EABren jaialdia hasi eta berehala, Tirri-Tarra fanfarearen sarrerarekin batera. Ohiko «uniformeaz» jantzita, *can-can* doinuz eman zioten hasiera ikuskizunari, mozo-rroturiko bi aktoreri lekua eta hitza emanez: «Bost istorio dakarzkigu gaur hona. Bost sari», esan zuten hauek.

Eta sariak ekartzen lehenak zazpi aktore biluzi izan ziren, oihal zuri bat estalki zutela. Zinema Saria eman zuten, Ane Gabarainen eskuetara joan zena, Ramon Barearen *Pecata Minuta*-n betetako lekaime rolagatik.

Telebista Sariaren irabazlea ezagutaraztea izan zen hurrengo lana. Joxe Felipe Auzmendiri egokitu zitzaion lan hori, ordu arte jende artean txintxo-txintxo egonak ziren Sobradun taldeko bi partaideren «baimenaz».

Alex Angulorentzat izan zen azkenik Telebista Saria, Tele 5 kateko *Periodistas* sailan egindako lanagatik.

Nahiago lan egin eta sariak jaso


Antzerki Saria, bestetik, Koldo Losadaren eskuetara joan zen, *Desperrados* antzezlanean beteriko rolagatik. Aurreko bi sarituek bezalaxe, saria eskertu eta lankideei eskaini zien, saria irabazarazi dion pertsonaiaren esaldi bat gogoratzeko ondoren: «Langabezia egotea egoerarik garbiena dela diot *Desperrados*-eko pasarte batean, baina lan egin eta honelako sari politak jasotzea nahiago dut».

Antzerkiak beste arte mota batzuekin uztartzeko duen gaitasuna erakutsiz, 9 urteko Maria Eugenia Silguero kontraxu jole sarituaren tarte heldu zen ondoren. Bere ahizpa Mari Karmenek lagundu zion pianoan, bost minutu inguruko pieza eder bat eskainiz. Jokulari Berria Sariaren irabazlearen izena



Ane Gabaraini Zinema Saria eman behar ziotenak alboko argazkian ikus daitekeen gisan agertu ziren oholtzan. Alex Angulok (behean), Telebista Saria jaso zuen.

EDURNE KOCH



EDURNE KOCH

jakinarazteko unea zen jada. Irabazlea benetan ezustean harrapatu zuen sariak, gainera, antolakuntza taldeko partaide moduan Silguero ahizpei lore sorta bana ematera oholtzara aterea zen Nagore Aranbururentzat izan

baitzen. Malkoak isurtzerainoko sorpresa hartu zuen aktore eta antzerkigile azpeitiar gazteak. «Hau ez nuen espero eta ez daukat hitzik. Eskerrik asko» xume batez agurtu zuen antzokia negarez, txalo bero artean.

Antzerki amateurrari Besarkada Saria

Azkenik, bizitza osoko antzerki ibilbidea saritzeko EABk eman ohi duen Besarkada Saria nork jasoko zuen jakitea besterik ez zen falta,

eta agertokian ezarria zegoen pantaila handian Ataungo irudiak agertu zirenean eman zuten lehen arrastoa sari banatzaileek. Irabazlea seminarioan ibilia zela esan zuten ondoren, Debako herrian urte askotan lan eginga zela gehitzeko. Goaz antzerki taldearen sortzailea zela erantsi zutenean, ez zen ja zalantzarik: Lukax Dorronsororentzako zen saria.

Dorronsorok ez zuen Victoria Eugenia egoterik izan. Ahotsik gabe omen zen atzo. Ohar labur-labur bat bidali zuen, ordea: «Ez dagokit niri Besarkada Sari hau jasotzea, antzerki amateurrari baizik. Eta 25 urte betetzen dituen Goaz taldeari».

Tirri-Tarrakoek itxi zuten gaua, baina beste «uniforme» batez jantzita agertu ziren. *Drag Queen* moduan azaldu ziren denak, *glamour* pittin baten falta sumatzen zuenari *glam* ukitua eta umore mordoa eskainiz. Euskal telebista, zinema eta antzerki munduarekin harremana duten aurpegi ezagunenak hurrengo urtean berriro bildu arte.